

FUNTSEZKO SOZietATEAK

Gure enpresa martxan jartzeko ezinbestekoa da beste sozietate batzuekin harremanetan jartzea, gure negozioa osatzeko hornitzaile batzuekin kontaktatu dugu, betaurrekoak konpontzeko behar diren lenteak eskuratzeko Optima deituriko enpresa batekin harremana izango dugu. Enpresa honek, prezio baxuen bila dabilzanentzako kalitate oneko lenteak eskaintzen dituen marka merkea da. Ikusmen bakarreko lenteak eta lente bifokalak bezalako aukera estandarrek dituzte prezio lehiakorretan.

Gure enpresak betaurrekoak merke saldu nahi dituenek kalitate mailan eragina izan gabe, enpresa aproposena iruditu zaigu. Eskaera bakoitzean 50 pare erosiko ditugu, hilean 50 saltzea espero dugulako. Modu honetara, hileroko egin beharko genuke eskaera. Enpresa honek, lente merkeak eskaintzeaz gain, eskaera handiak egiterakoan, deskontu bat egin ohi dute, beraz eskaera honen kostua gutxi gorabehera, 1000€-koa izatea espero dugu, honen bidez, lente pare bakoitzaren prezioa 20€-koa da, eta eskaera egitearen kostua, hau da, bidalketa kostuak etab. Gutxi gorabehera 150€-koa izango lirateke. Dena batuz, 1150€ izango lirateke eskaerak egitearen kostua gutxi gorabehera. Honetaz gain, segurtasun stock bat izan beharko dugu lentei dagokionez. Gure kasuan segurtasun stocka baita ere 50 lente paretakoa izango da.

Bestalde, gure beste hornitzaile garrantzitsu bat, betaurrekoak ontzietan uzten dituen jendea da. Hauek %20ko deskontua izango dute betaurrekoak bertan uzten badituzte. Beraz, gure bezeroek betaurreko berri edo konpondu batzuk izateko aukera izango dute beraien betaurreko apurtu batzuen truke.

Honetaz gain, gure produktuak betaurrekoen kaxa bat beharko dute babestuen izateko. Hauek, azken finean, ontzietan ez dira egongo ziurrenik beraz, Alcon deituriko enpresarekin harremanak izango ditugu produktu hauek izateko. Hauek Optima bezala, eskaera handiak egiterakoan, beraien produktua merkeago egiten dute beraz hilabeteen 450 betaurreko espero dugunez, 475 kaxa eskatuko ditugu hilean 1000€ prezioan gutxi gorabehera, eskaera egitearen kostua barne.

Amaitu baino lehen, Irrati eta Aldizkariekin harreman estua izango dugu. Azken finean, produktua Gipuzkoa eta Euskal Herri guztian ezagutu ahal izateko funtsezkoa da sozietate mota hauekin erlazio ona izatea. Honetaz gain, baditugu gure produktua ezagutzera eramateko beste hainbat tresna, adibidez webgune bat.

Azkenik, gure enpresak apalak, ispiluak, mahaia eta aulkiak bezala altzairuak beharko ditugu. Beraz Ikea deituriko enpresan erosiko ditugu, hauek kalitate nahiko ona duten altzariak izaten ditu prezio oso on batean. Hauek hasierako inbertsio bat

izango direnez ez dugu harreman estu bat izan beharko nahiz eta altzari hauek gure dendarentzat funtsezkoak izan.